

www.noaia.com

Noaia!!!



Tximeletako kideak Udaberri Txapelketan arituko dira



Bazpi txirrindulari eskola,
denboraldi berriari ekiteko prest

Albistea iruditan!

Aitzagako kide egiteko kanpaina abiarazi dute

Aitzagaren aldeko ekimena burutu zen igandean. Herritar ugari izan ziren Aitzagari babesa ematera hurbildu zirenak. Tartean izan zen Joseba Permach, Ezker Abertzaleko kidea. Ekitaldian itxiera egunak ekarri zituzten gogora: “egun zailak eta gogorak izan ziren haiek. Nekez ahaztuko ditugu. Izan ere, Aitzagaren itxiera agindu ez ezik, Aitzagako hiru kide Madrilerak deklaratzera deitu baitzituen: Jexus Mari Errekondo, Koldo Lizaso eta Arantxa Manterola. Aitzaga elkarteko arduradun izateagatik, “kolaboratzaille” gisa inputatu zituzten hirurak. Zorionez, Auzitegi Nazionalako bisita hark amaiera hobea izan zuen, epaile-



KOLDO LIZASOK HITZA HARTU ZUEN PASA DEN IGANDEKO EKITALDIAN.

ak ez baitzuen euren aurkako neurririk hartu. Bai, ordea, elkartearen aurkako neurria”. Ekitaldiaren amaieran,

Aitzagako kide izateko bete beharreko orriak banatu ziren bertaratu zirenen artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldetgia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregerai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IMANOL UBEDA

Berdin dio

Ez da ezer gertatu. Eta ez da ezer gertatuko. Nori axola zazaio literatura. *Telebista saio bat literaturari eskainia? Gaur egun ez al dek luxu handiegia? Gauzak ez zeudek txikikerietarako, lagun.* Pentsatuko du baten batek. Bai, konturatu naiz irakurle, oraindik ez duzu asmatu ze arraiotaz ari naizen.

Hori da akaso okerrena (niretzat). Lehen lau lerro hauek irakurri ondoren, askok ez dutela asmatu zertaz ari naizen. ETBn bada "Sautrela" izeneko literatura saioa. Ba amaitzera doa. Apirilaren 8an emango dute azken kapitulua. Eta akabo. 2013an akaso bueltatuko ote den, hori esan da ETBko zuzendaritzatik. Baina Sautrelako langileek hildakotzat ematen dute saioa. Eta eurek badiote, nik sinistu.

Bigarren parrafo hau irakurri ondoren, asmatu duzu zertaz ari naizen. Ah. Ez zenuela horren berri. Orain enteratu zarela. Ez kezkatu. Normala da. Albistea eman ondoren, ez baita ezer gertatu. Eta okerrena (niretzat), ez da ezer gertatuko.

Albistearen testuingurua ekarriko dut gogora, labur labur bada ere: twitter bidez, Sautrelako kide batek abisu modukoa eman du. Bere bitartez, literaturari buruzko web orrialde batek albisteari jarraipena egingo dio. Berehala, Berriak jasoko du notiziaren haria. Zalaparta etorriko da gero sare sozialetan, hainbat blogetan eta euskal prentsako toki jakin

batzuetan. Bi-hiru eguneko ika-mika, larre motzean gainera. Eta kitto. Amaitu da dena.

Interesekoa dugulako, gaiari jarraipena egin diogun batzuk asaldatu egin gara. Jainko eta santu guztiekin akordatu gara. Eta kitto. Gehiengo ez da enteratu ere egin. Eta ez dut esan nahi honekin, gehiengoari interesatu behar zaionik. Ez, ez. Baina oso esanguratsua dela. Literaturak telebistan duen saio bakarria desagertzera doala eta hemen ez da ezer gertatuko. Hori baino ez dut esan nahi. Ez gehiago, ez gutxiago.

"ETB Kantxa", "El Conquistador" edo antzekorik itxiko balute, nazkatu arteko zalaparta izango genuke hemen. Deserriarako bidaia-txartela erosi arterainokoa igual. Ez dakit noren dimisioa eskatuko zen. Matxinada abian izango zen berehala... Baina Sautrelaren kasuan, ez. Mesedez. *Hi pitzatura hago.* Hori gehiegi eskatzea da.

Arazo honen erroa, ordea, bestelakoa da. Kultur politika baten falta nabaria dela esango nuke. Berdin dio nor dagoen boterean. Instituzioetan zeinek duen aginte-makila. Kultura beti izango da apaingarri modukoa hemen. Eta horretan, euskaldunak beste toki batzuetan baino okerrago ari gara. Baina berdin dio. Ez baita ezer gertatu. Eta are okerrago oraindik, ez da ezer aldatuko.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

Oroitzen naiz hasiera haietan elkar-teari izena jarri behar zitzaionez epe bat zabaldu eta zenbait izen aurkeztu zirela.

Izen haien artean Aitzaga zegoen eta izen hori zergatik aurkeztu zuen aditzera eman zigun aurkezleak. Bere hitzetan, (nik ulertu nuenez) Aitzeta aurreko hariztegian biltzen omen ziren antzinako arbasoak eta hortik Aitzaga izena.

Deigarria egin zitzaidan emandako arrazioa eta izen hori aukeratu genuenez, Usurbil 1371-1971 liburura jo nuen ea zerbaite topatzen nuen eta horra hor 139. orrian lerro artean zer dakarren: "... bailara osoaren kontseju edo batzar irekiak, Paris (Aritzeta?) etxearen aurreko hariztegian. Aintzina aintzinako ohitura eta jatorritasun politikoa kontseju ireki haue-
na; parlamentarismo zahar baten aitor-

Aitzaga berriro zabalik

mena". Beraz, arrazoi bikain bezain mardula Aitzaga izena aukeratzearena.

Gerora, 1995. urtean etorri zen Aitzaga Atsedeen Kultur Elkartearen jartzearena edo izendatzearena, eta geroztik bertan ibili izan gara haur-gazte-heldu-zahar-emakume eta gizonezko usurbildarrok bai taberna edo elkarte barruan. Beren urtebetetzea ospatzen haurrak, eta bilkura edo afaritxoak egiten gainontzekoak. Herriko talde edo elkarte ezberdinen bilgune ere izan da Aitzaga eta berdintasunean oinarritu dira bere estatutuak. Euskal Herrian bizi genuen egoerari lotu zitzaion hasieratik gaurdaino, eta ziur naiz aurrerantzean ere herriko haurrek beren urtebetetzea bertan ospatzen jarraituko dutela, eta gainontzekook bilkura eta afaritxoak egiten, beti ere Euskal Herriko egoerari loturik eta usurbildarroi

zabalik lehen bezalaxe. Egoera bakoitzari aurre eginez, Euskal Herria eta Usurbil ezkerretik eraikiz.

Oztopoak-oztopo, etsaiaren eraso bortitza jaso izan du 6 urtez Aitzagak. Gaizki ez banago, oraindik ere eraso bortitz horren atzaparrak bere bizkar gainean dituzten herritarrak ere baditugu geure artean. Gaur irekita dugu berriro eta lehengoarekin bat eginez, Usurbildik Euskal Herrian zabaldu berri den askatasun itxaropenari bultzadaxoa eman diezaiogun Aitzagatik. Bidea egiteak merezi duelako eta XXI. gizaldira bizi-bizirik eta indartsu iritsi den Europako Herriarik zaharrenetarikoa den Euskal Herriak behar gaituelako. Beraz, lehen bezalaxe, eutsi lehengoari eta bidea eginez ekin lanari.

Aitzagako kide bat*

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkarrearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

Izendapen berriak, Hazienda Batzordean eta Kirol Patronatuan

Batzorde desberdinetarako bi izendapen ere, onartuta geratu ziren otsailaren 28ko osoko ohiko bilkuran. Batetik, Usurbilgo Udaleko Hazienda Batzordea lehendakariz aldatu dute. Aipatu saioan dekretu bidez berri eman zenez, Mertxe Aizpurua alkateak proposatu eta joan den otsailaren 2an batzarkideen gehiengoaren babesa izanik, aurrerantzean Alaitz Aizpurua zinegotzia izango da Hazienda Batzordeko lehendakaria.

Beste batzorde baterako ordezkari bat ere hautatu zen bilkura berean. Kasu honetan, Kirol Patronatuko Zuzendaritza Batzordeko kide izendatu zuten, Usurbilgo eskoletako ordezkaria; Iban Maritxalar Elizondo herritarra. Azken urteotan ere bera izan da eskoletako ordezkaria. Honenbestez, lan horri Maritxalarrek berak segida ematea proposatu zuen gobernu taldeak udalbatzan. PSE-EE abstenitu zen, gainerako udal taldeek alde bozkatu zuten.



DIARDO KIROLDEGIA.

Larrialdietarako etxebizitzetako bat alokairura bideratuko da

Usurbilgo Udalak Gernika 13 ibilbidean, Maixu etxe izenez ezaguna den eraikinean jabetzan dituen zortzi pisuetatik zazpi alokairura bideratuko ditu aurrerantzean. Orain arte lehen solairuko bi etxebizitzak larrialdi egoerarako erreserbatuak zituen Udalak. Baina joan den otsailaren 28an burutu zen osoko ohiko bilkuran, gehiengo osoak bi bizilekuotako bat hurrengo 50 urteetan gutxienez, alokairuan izateko konpromisoa hartzea erabaki zuen.

Bilduk, Aralarrek, EAJ-PNV-k eta PSE-EEK babestu zuten proposamena, Hamaikabatek aurka bozkatu zuen.

AZKEN OSOKO BILKURAN HARTU
ZEN ERABAKIA.

Onarturiko proposamenean zehazten denez, datorren mende erdian, aipatu pisua "erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren errentarekin alokairuan" egongo da.

Herri-bideen inbentarioa onartu da

Behin betiko onartu da Usurbilgo herri-bideen Inbentarioa. Bildu eta Aralarren babesa jaso zuen proposamenak. Hamaikabat, PSE-EE eta EAJ-PNV abstenitu ziren. Mertxe Aizpurua alkatearen esanetan, "legeak eskaturikoa baino berme gehiago eman zaio" gai honi. Herri-bideen inbentarioa Batzordetik diktaminatua zetorren azken osoko bilkurara. Alkateak gogorarazi zuenez, "batzordean, 15 afektatu egon ziren". Aralarrek ere egin den lanketa txukuna eta trinkoa izan zela baloratu zuen. Aipatu moduan, azken osoko bilkuran gehiengo osoz onartu zen herri-bideen inbentarioa.

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

LATAILLADE
ITURGINTZA
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua
Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Hotza



Aze hotzak! Hau da negua hau! Gaur astelehena da, eta nahiko ondo nago, beno, astelehen pixka bat badaukat, baina ostiralean medikura joan nintzen. Zertara? Ba eskuak ospelez beterik neuzkan, minarekin eta baita hatzak haunditurik ere. Izan ere ez dut sekula hainbeste hotza pasa, lanean batez ere. Eskularruak jartzea sufrimendu bat izan da, hain hotzak zeuden... Ziur nago zuetako edonork izango duela hotzarekin lotuta pasarteren bat. Eta bai egin dituela egun eguzkitsu batzuk ere (gaur hala dago), baina biharko ere elurra iragarrita dago, 500 metrotara. Bestalde, gure auzoan zer? Ba ikastaroak aurrera doazela; pintura, yoga... Hala ere bada albisterik auzoko elkartean, dirudienez bere "presidentak" auzotik ihes egin omen du, eta beraz beste norbaitek hartu beharko du lekukoa, baina dimititu ez duenez... Nik uste konponduko direla, modu batera edo bestera. Lapurretaren bat ere egon zen auzoko taberna batean, zoritxarrez hau ere ohikoa bihurtzen ari da, baina bai hemen eta baita beste leku batzuetan. Ez dakit hotz honekin zer martxa izango duten sagardotegian, baina kuadrila batzuk topatu izan ditut Ingemarrekorekin, oinez auzora etortzen. Ni oraindik joateko nago, baina laster egingo diet bisita, ze ni ere, beste batzuk bezala, eguraldia bezala egon naiz, hotzez. Ea pixka bat epeletzen garen.

AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Wei Chen aginagatarra



Argazkikoak Wei Chen du izena. 25 urte ditu, Taiwan uharte pareko Fujian (Txina) probintziko da. Bi senideetako gazteena, 5 urte badira Aginagako biztanlea dela. Lehenago, kanariar irletan ere 3 hilabete igaro zituen. Bere lehengusuetako bat bertan du bizitzen. Surimiaren munduan murgilduta dagoen "El Angulero" lantegian lan egiten du, eta gustura bizi da. Hala ere, astebukaera batzuetan Donostiako Kursaal ondoko "WOK" jatetxe txinatarrean zerbitzatzen du. Aginagan lasai bizi dela aitortu arren, kotxe baten beharra ere sentitzen du, baina gidabaimenik gabe zail ikusten du kontua. Hizkuntza, arazo garrantzitsu bat da berarentzat, gaztelania ez baitu ongi menderatzen. Itsasertza gustatzen zaio, Txinako bere etxea ere hondartzatik gertu baitago. Sagardo munduan ere ez dabil batere makal, txuleta eta bakailua ere oso gustuko ditu baina bere jaki gustukoena kokotzak saltsan dira. Wei Chen pozik dago larunbatean bere etxera itzuliko baita, arreba ezkonduko zaio eta. Horretarako bere hilabeteko oporrez baliatuko da. Bere familia osatzeko gogoia izan arren, Txinatik hain urrun bizita ez dela erraza izango dio. Wei Chen: ongi ibili hire jaioterrian eta itzuli nahi duanean hire bigarren herri honetara. Zorionak zuen arrebari.



ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Bide sorgindua



Hau idazten ari naizen bitartean Irubietarako bidea porlaneztatzen ariko diren esperantza daukat. Gure etxeko bideak arazo ugari izan ditu aldameneko erretena-rengatik. Ondorioz porlaneztatzea atzeratze etengabean ibili da udal legealdiz legealdi. Baina ezin du izan hori bakarrik, parte txarrekoetik ere behar du bide horrek. Ezin bestela azaldu joan den asteko ostiralean, 8:00etan, gu bertan ginelarik, nola porlaneztatzerako etorritako langileetako bat seko konortea galdu eta lana hasi baino lehen utzi behar izatea. Han joan zen, alde batetik, zorabiatutako langilea anbulantzia eta, bestetik, beste langileak, badaezpada ere, beren furgonetan. Han gelditu ziren bide ertzeko lur-jabeak, bidea mugi ez zedin bertaratutakoak. Gaur goizean alde egin dudanean han ari ziren lanean. Ez dakit beteko duten lana, hala ere. Behar bada lamiei edo basoko jeinuei deitu beharko diegu bidea buka dezaten. Behar bada hori ere ez, alde eginak izango dira leku lasaiagoetara basoko beste izaki guztiekin batera mendi txikitze lanek bidaltita... Zuek pasioan bazabiltzate, etorri eta ikutu lurra edo porlana, eta gero segi azkar-azkar, zer gerta ere.

ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

...denbora, gure denbora...



Karobiko tabernako barraren izkin batean, buila eta zalaparta artean, gizon zahar batek egunkaria irakurtzen du. Burumakur, pentsakor. Eta bere atsekabe haundian, zeinen gutxi gozatu zuen gaztaroa darabil buruan.

Garai haietan indarra, edertasuna eta hitza zuen lagun. Zaharra dela badaki, sentitzen du, ikusten du! Eta hala ere gaztaroa atzo bere odolean zeramana, ez dario bor-bor.

Zuhurtasunak nola inbaditu zuen datorkio, nola bertaz ezin zen fio eta gezur esaten zion behin eta berriz: "Bihar, bihar egingo dek, hire denbora guztia daukak eskuarte!"

Ezin zaio ahaztu geldiarazitako inpulstu guztiak eta zenbat desio laga zituen alde batean utzi, zenbat desio sakrifikatu zituen. Galdutako aukerak bere zuhurtasunari iseka dabilta gaur.

Bere pentsaera eta errekerdoek danbadaka, inbasioa bailiztan! Norbera bere bidean aurrera doa, atzerantz doa...

“Olaiaren erronka”, birziklatzea sustatzeko kanpaina martxan da

Bi lagun hilabetez apartamentu txiki batean elkarbizitzen, erronka bat bete asmoz: batak besteari birziklatzen irakatsi beharko dio. Lortuko al dute? Horretan datza, San Marko Mankomunitateak antolatutako “Olaiaren erronka” izeneko ekimen berria. Herritarren artean, birziklatzea sustatzea du helburu.

Baten baino gehiagoren begiradapean daude Olaia eta Aitor. Martxoaren 1az geroztik, Donostiako Gipuzkoa plazan duten apartamentu txiki batean bizi dira biak. Olaiak 26 urte ditu, kazetaria ogibidez. Pisu kide berria du, Aitor, pasota samarra dena, orain arte hondakinak ez ditu gaika bereizi. Horregatik, hilabete du Olaiak Aitorri birziklatzen irakasteko. Erronka beteko duen edo ez ikusteko, euren arteko elkarbizitzaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutu daitezke, Gipuzkoa plazara gerturatuta. Baita Interneten, streaming bidez ere, olaiarenerronka.net helbidean. Twitter eta Facebook bidez eurekin komunikatzeko aukera dago. Donostian egongo dira igandera arte, hilaren 11ra arte. Gero, martxoaren 14tik 18ra Pasaiaiko Gure Zumardia plazan; Lasarte-Oriako Okendo plazan, hilaren 21etik 25era; eta azkenik, Erreterriako Gamon



DONOSTIAKO GIPUZKOA PLAZAN DAGO OLAIA ETA AITORREN “APARTAMENTUA”.

Zumardian, martxoaren 28tik apirilaren 1era. Egunero, hamar orduz, 10:00-20:00 artean.

Bigarren eskuko azoka

Bestalde, San Markok antolatutako bigarren eskuko lehen azokak burutu dira jada. Asteotan, Mankomunitatea osatzen duten hamar udalerrietara hedatuko da, berrerabilera sustatzea helburu nagusi duen ekimena. Abian den bosgarren edizio honetako azken azoka, Usurbilen ospatuko da, apirilaren 1ean, Dema plaza eta frontoi inguruan. Gai desberdinak trukatu

edo saldu nahi dituenak, postua jartzeko aukera izango du. Horretarako ordea, interesdunek alde aurretik parte hartzeko orria bete eta antolatzaileri bidali beharko diete. Parte hartzea doakoa da. Izena alde aurretik eman beharko da, beranduenez jota azoka eguna baino astebete lehenago. Eskaera orria www.merka2sanmarcos.org web orrialdean eskura daiteke eta bertan bete. Bestela, deitu 943 670 249 telefono zenbakira. Ekimen honekin, berrerabilera, hondakinen murrizketa eta prebentzioa bultzatu nahi dute San Markotik.

Betaurreko erabiliak ez bota, Optikara eramán

Erabilitako betaurrekoak edota puskatutakoak ez dago zertan zaborretara bota beharrik. Erreus izateari utzi eta berrerabil daitezke. Usurbil Optikatik NOAUA! bidez ohartarazi nahi dutenez, euren saltokian betaurreko erabiliak jaso egiten dituzte. Bildutakoak, gero Saharara eramaten dituzte, Donostiako Sahararen Lagunak izeneko Gobernuz

Kanpoko Erakundearen bidez. Optikatik azpimarratu dutenez, betaurrekoak puskatuta izanagatik ez bota erreusaren poltsara, lenteak adibidez aprobeitza daitezke eta. Usurbil Optika ordutegi honetan dago zabalik: astelehenetik ostiralera, goizez 9:30-13:30 artean eta arratsaldez, 17:00-20:00 artean. Larunbat goizetan aldez, 10:00-13:30 artean.



BETAURREKOAK SAHARARA BIDALTZEKO KANPAINA MARTXAN DA.

EAJ-PNV, 2012ko udal aurrekontuen inguruan

“Gobernu honek baliabideak hobeto kudeatu behar ditu”

2012ko udal aurrekontuen hari-
ra, oposizioan diren alderdien
hitzak jaso genituen aurreko
astean. EAJ-PNVren iritzia falta zen.
Eta hemen duzue alderdi jeltzaleak igorri
digun balorazioa.

EAJ-PNVk aurkako botoa eman dio
Bilduk aurkeztu dituen aurrekontuei.
Ondoren arrazoituko ditugu jarrera
honen zergatiak. Orokorrean ez gatoz
ados udal gobernu honek egiten duen
kudeaketarekin, batipat krisialdi hone-
tan dauzkagun baliabideak hobeto ges-
tionatu behar dituelako eta egoera hone-
tara egokitzen jakin behar duelako; eta
ez ezer pasako ez balitz bezala jardutea.

Kiroldegia

Kiroldegiak azaltzen duen defizitak
600.000 eurokoa hain zuzen, benetan
kezkatzen gaitu. Zerbitzu hau izan deza-
gun, urtea joan eta urtea etorri diru
kopuru hau udalak jarri behar izaten du.
Egia esanda, zerbitzu kaxkarra gainera:
Instalazioak zaharkituta daude, hezetan
arazoak dauzkagu, tabernarako egiten

den eskaintza ez da ona, eta abar luze
bat... Udal gobernuak ez du inolako
mugimendurik egiten arazo honen aurre-
an. Non dago gestioa? Non dago kudea-
keta, udalak 600.000 euro urtero gasta-
tzen dituen bitartean? Udal gobernu
honek ez al dauka etorkizunerako gai
honi konponbide bat emateko asmorik?

Kiroldegiko zerbitzuak onak nahi
ditugu eta ez txarrak eta gainera horren-
beste diru galtzen arazten digutenak.
Adibidez, zergatik ez da pribatizatzen
udal kiroldegiko gestioa beste herri
batzuetan egiten den bezala?

Eskaintzen den zerbitzuak eta honen
kudeaketa ekonomikoak ezin hobek
izan behar dute eta ez “ez ikusia” egin
eta aurrera.

Prezio publikoak

- Benetako prezioa publikoak ezagu-
tu behar ditugu. Zenbat kostatzen da
udalak ematen dituen zerbitzu bakoit-
za: ur hornidura, zabor bilketa,... zer-
bitzu hauetako bakoitzak balio bat du.
Udalak zergen bidez ordaintzen al ditu
bere osotasunean? Benetako datuak

jakin nahi genituz-
ke.

Langileentzat

%3 soldatak igotzea

E U D E L e k
(Euskal udaletxeen
elkartek) ez du
aurreikusten aurr-
tengo soldatak igot-
zea baina udal
gobernu honek %3
proposatzen du.

Ezinbestekoa da jasaten ari garen kri-
sialdiak erreflexu zuzena izatea aurre-
kontuetan, benetako ahalegina eginez,
behar beharrezkoak ez diren gastu
arruntak kenduaz eta tamalez, egoera
hobeagoak etorri arte soldatak bere
horretan mantenduaz.

- Azkenik, gobernu honek ez du
dudarik izan "benetan krisi larria jasa-
ten ari garela, elkartasun fondoa
orain arteko % 1 etik % 0,7ra jaisten.
Krisiaren pisua pasa behar al zaie ba
behar handienean dauden pertsoneri?"



ANDONI ATXEGA,
UDAL ZINEGOTZIA.

Hauteskunde sindikalak, Luzuriaga lantegian

Hauteskunde sindikalak burutu
zirenen otsailaren 15ean, Victorio
Luzuriaga lantegian eta CCOO sindika-
tuak irabazi zituen. Delegatu kopuru
gehien mantentzen dituen sindikatua izan
jarraitzen du. Azkenekoz egin ziren
hauteskundeetatik, LAB izan da ordea
emaitzak hobetu dituen sindikatu baka-
rra. Gainerakoek euren ordezkariak bere

horretan mantendu dute, ESK izan ezik.
Orain arte zuen ordezkari bakarra galdu
baitu. Hala, LAB bi delegatutik hiru izan
tera igaro da Victorio Luzuriagan, hiru
ordezkaritik lauro Komitean. CCOO
sindikatuak lau delegatu lortu ditu, bost
Komitean; ELAk bakarra, bi Komitean;
eta UGT-k bi delegatu, eta bi ordezkari
Komitean. Ordezkaritza indartzen ari

den sindikatu bakarra da LAB. 2008az
geroztik egin diren bi hauteskundeotan,
ordezkari bana irabazi baitu. Aurreko
hauteskundeetatik nabarmenezko beste-
lako daturik ere bada; zentsoan izan den
beherakada, 414tik 258ra hain zuzen.
Botu emaileen kopuruak ere behera egin
du; 360 izan ziren duela lau urte, aurtun
212.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatua eta fatxadak
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzealdea), LASARTE-ORIA

IAITETXEA - TABERNA
BELARTZA
25
943 37 60 82

**Eguneroko menuak eta
larunbatetan menu bereziak**

- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pirtxoak, raziok...
- Urmeentzat menu bereziak
- Atxeden egunak: larunbat gaua eta igandea

DECATHLONen ONDOAN
Poligono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 - A4 Pabiloia • Donostia



Han Goiko Arrautzak Agiñan

Bada Usurbilen arrautza ekologikoak ekoizteko eraiki den oilategi berria. Agiñan kokatua dago, orain dela 50 urte inguru arte usurbildarrok erromeriak ospatzeko elkartzen ginen lekuan.

Lekuak daukan istorio berezi honek txundituta edo, Jexuxek bertako eraikuntza usadioan oinarritutako oilategi bat eraiki du.

Orain dela ehun bat urte egin izan den moduan, Jexuxek material naturalak aukeratu ditu oilategia eraikitzeko. Eta, usadiozko arkitekturaren egin izan den moduan, urtaro ezberdinetan zehar eguzkiak zeruan egiten duen bidearen gorabeherak erabili ditu eguzki izpiez oilategi barrua neguan berotu eta itzalak kontrolatuz udan oiloak fresko fresko mantentzeko.

Azken aldian askotan izan ohi dugu bioklimatika eta bioeraikuntza irizpideak erabiliz diseinatu eta eraikitako etxebizitzak berri, baina ez da hain ohikoa irizpide hauek kontutan hartuz eraikitako nekazal edo abeltzantza eraikinak aurkitzea.

Leku batean eraikin bat altxatze-



LEKUKO LUR ETA ZERU ENERGIAK HARMONIZATUZ ERAIKI DA OILATEGIA.

an, zuhaitz bat landatzean, lurra goldtzean edota mailetan gure ortua osatzean, bertako energiaren kalitatean eragiten dugu. Oilategiaren estetika polit zainduak, eraikuntza materialen ezaugarriek eta eguzki izpien kontrolak oilategi barnean sortzen duten giro xamurraz gain, nork daki Jexuxen oiloek ematen dituzten oskol gogor, zuringo likatsua, gorringo krematsu eta zapore findun arrautzak ez dituen lekuko

energiaren kalitatea hobetzeko hartutako diseinu neurrien eraginak ere eragiten.

Izan ere, gizakiok orain dela ez urte asko naturarekin geneukan erlazioa moztu aurretik egin ohi genuen bezala, Jexuxen oilategia eguzkia eta ilargiaren mugimenduetan oinarrituz lekuko lur eta zeru energiak harmonizatuz diseinatu eta eraiki da.

Jexuxen telefonoa: 650 195 941.

Gure Pakeako bazkideen arteko txapelketan saritutakoak

Otsailean jokatu dira Gure Pakeako bazkideen arteko joko txapelketak. Aurreko astean izan zen sari banaketa eta horren ondoren lunch txiki bat egin zuten. 2012ko txapelketak ere, giro ederrean ospatu dira.

Puntuak txapeldunak, Fernanda Lizaso eta Anttoni Zabala. Bigarren, Mario Jimenez eta Obdulio Martinez. Hirugarren, Juan Ugarte eta Maria Angeles Lizargarate.

Tutean txapeldunak, Felix Cañibano eta Benigno Rojo izan dira. Antonio Garcia eta Juan Jose Faz bigarren, Nieves Aranburu eta Axen Mindegia hirugarren.

Musean, Florita Uranga eta Maria Arregi gailendu ziren. Bigarren Angel



TXAPELKETAN SARITUTAKOAK, ARTZABALEN EGINDAKO ARGAZKIAN.

Guerra eta Pedro Guisado izan ziren. Hirugarren sailkatu ziren Manuel Maiz eta Mari Karmen Olaizola.

Igel jokoan, Pedro Guisadok irabazi zuen (87 puntu), Angel Guerra bigarren izan zen (67 puntu) eta Vicente Leronés

hirugarren (48 puntu).

Tokan, Maria Jesus Olanok irabazi zuen 17 punturekin, Vicente Leronés bigarren sailkatu zen 14 punturekin eta Juan Ugarte hirugarren izan zen 13 punturekin.

Bazpi Txirrindulari Eskola, denboraldi berriaren bidean da

Arropa berriak estreinatuz, Bazpi txirrindulari eskola-koek ekin diote denboraldi berriari, primeran gainera. Ibaetan parte harturiko lehen txapelketan, Xuban Errazkin lehena izan zen helmugara iristen, hirugarren Boris Campoo. Ondo entrenatuta, denboraldi berria indartsu hasteko prest daudela diote. Kasu batzuetan gurasoengandik jasotako zaletasuna izanik, txikitatik dabilta txirrindularitzan eta etorkizunean, euren burua kirol jarduera berean ikusten dute. Ramon Unanue ere pozik da, Bazpi jorratzen ari den bidearekin.

NOAUA! Nola ikusten duzu taldea?

Ramon Unanue. Orain dagoen taldea fruitu berri bat da. Hazia hasi ginen botatzen duela urte pare bat, eta bidean goaz. Gazte taldeak osatzen hasi gara, guraso batzuk kolaboratzen, babesleak ere laguntzen. Osatzen ari gara lan bat egiteko eta ia lehen bezala, herri mailan fruitua ikusten dugun.

RAMON UNANUE

“Harrobia beti izan da. Txirrindularitza oso kirol jarduera maitatua izan da Usurbilen”

N. Zer aldatu da lehengo txirrindularitza gaurkora?

R. U. Aldatu gutxi. Gaur egun, jendeak beste kirol aukera gehiago ditu. Horrek gazteak zatitzen ditu. Jarduera gehiegi hartzen dituzte eskolatik aparte. Gustura gainerakoan, gehienek kirola egiten dutelako.



EZKERRETIK HASITA: XABIER CARBAYEDA, ALEX URKIOLA, LUIS SOBEJANO, HARKAITZ MURILLO, LUIS SOBEJANO, BORIS CAMPOO, XUBAN ERRAZKIN, IÑIGO ALTUNA, LUKEN CARBAYEDA, OIER LARREA, BEÑAT LIZASO ETA ANDONI ERRAZKIN. BIZIKLETARI EUSTEN DAGOEN LAUKOTEA BERRIZ, EZKERRETIK HASITA: XABIER ELOSEGI, BEÑAT CARBAYEDA, IMANOL IRIBAR ETA ANDER ALTUNA.

N. Taldekide batzuk denboraldia ezin hobeto hasi dute?

R. U. Gustura gaude emaitzekin, baina nahiago dut 17-18 urte arte ikasten jarraitzea. Irabazten bada ondo dago, baina gainerakoan ikasi egin behar dute. Ondo pasa eta lagun artea egiteko.

N. Harrobia ikusten duzu Usurbilen?

R. U. Harrobia beti izan da. Txirrindularitza oso kirol jarduera maitatua izan da Usurbilen. Gaur egun, tokiak daude gaizki ibiltzeko txirrinduan, hainbeste auto dago. Baina oso ondo gaude gu. 11-16 urte artekoekin Zumartegi industrialdean ibiltzeko oso leku ona dugu. Oso ondo ari gara lanean.

N. Bazpi bezalako bilgune bat zergatik falta zen Usurbilen?

R. U. Falta zen. Lehen Usurbilgo Txirrindularien Elkartearen zen, baina gerora eten zen. Berriz hasi gara, mar-

txan gaude. Gazteak etorriko diren esperantza dugu.

N. Nolako taldea izatea gustatuko litzazuke?

R. U. Gipuzkoa mailan eta garai batean hitz egiten zen bezala, Usurbilgo txirrindularien eskola oso indartsua zen. Ez Gipuzkoan bakarrik, baita Euskal Herrian eta estatu mailan. Eskola bezala, hau ere gustatuko litzaidake indartsua izatea. Olinpiada eta mundialetara joateko mutilak iritsi dira, profesional mailan. Bide horretan lan egitea gustatuko litzaidake, iristen bada ondo. Eta ez bada etortzen, lan egin dugu eta denak gustura.

N. Zalantzan dagoen horri begira, txirrindularitza hasi edo ez, zer esan?

R. U. Beldurrik gabe etortzeko, lagundu egingo diogula. Horretarako gaude. Lagundu, irakatsi eta gozatu, gero ez zaiola gustatu eta utzi egiten duela? Baina bizikletan ibiltzen ikasia izango du.

Ramon Unanue: "Ikasteko eta gozatzeko"

NOAUA! Zuen dinamika zein da?

Ramon Unanue. Txapelketak hasi direnetik, astelehen, asteazken eta ostiralean jarri ditugu entrenamendu saioak. Egun argia behar dugunez, 17:00etarako hasi asmoz.

N. Zer esan nahi zenieke taldekideei?

R. U. Ikasteko eta gozatzeko. Eta egunen batean, orain ikasten dutenekin zeharkaldiren bat egitera joaten badira, izan daitezela gai, bizikletan doazela kopeta altxa eta bazterrak begiratzeko. Ikusteko gauza zoragarriak daude eta.

Taldekideak:

Xabier Carbayeda, Alex Urkiola, Luis Sobejano, Harkaitz Murillo, Luis Sobejano, Boris Campoo, Xuban Errazkin, Iñigo Altuna, Luken



RAMON UNANUEK URTEAK EGIN DITU USURBILGO TXIRRINDULARITZA SUSTATZEN.

Carbayeda, Oier Larrea, Beñat Lizaso eta Andoni Errazkin. Xabier Elosegi,

Beñat Carbayeda, Imanol Iribar eta Ander Altuna.

Tapa eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2011 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2011ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2011



433-473 zenbakiak

Potxoenearen ateak zabalik dira

Potxoenea izenez ezaguna den eraikinak hutsik egin ditu hainbat urte. Kaxkoan, toki ederrean kokatuta. Herriarentzat inolako erabilerarik gabe. Duela urte batzuk, kultur ekipamendu gisa aurreikusitua zen udaletxean. Egitasmo hura kultur etxe berri batean hezurramitu da. Dagoeneko ireki ditu bere ateak.

Larunbatean egin zen kultur eraikin berriaren inaugurazioa. Mertxe Aizpurua alkateak gidatu zuen ekitaldia. Foru Aldundiaren laguntzarekin berritu da Potxoenea eraikina eta alkateak eskerak eman zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari. Jarraian, Martin Garitano Ahalduen Nagusiari eman zion hitza. Maiz ekipamendu handietaz hitz egiten dela (Donostiako Tabakalera, kasu) baina herrietako kultur ekimenak eta ekipamenduak ere sustatzearen alde agertu zen. Dantzariak eta trikitilariak alaitu zuten inaugurazio ekitaldia eta



JENDETZA ELKARTU ZEN LARUNBATEAN, INAUGURAZIO EKITALDIAN.

jendetza elkartu zen atarian, Potxoenea barrutik ezagutzeko gogoz.

Ixabel Agirresarobek umore ukitua eman ondoren, Potxoeneara hasi zen jendea sartzen. Behin barruan, Alaitz

Aizpurua udal zinegotziak hartu zuen hitza eta segidan Ugaitz Agirrek poema bat errezitatu zuen. Kantu Taldekoek, bestetik, kantari egin zieten ongi etorria Potxoeneako lehen bisitariei.

Arrate elkarteko kideek giro ederrean ospatu dute mende laurdena

Ez dute oharkabea pasatzen utzi nahi izan, bete berri duten mende laurdena, 25. urteurrenera ailegatu baita Aginagako Arrate Elkarteak. Joan den igandean burutu zituzten ospakizun ekitaldiak.

Hasteko, joanak diren bazkideak omentzeko meza nagusian bildu ziren. Gero, urteko balantzea aurkeztu zuten. Eta azkenik, mende laurdena ospatzeko bazkari baten bueltan eseri ziren guztiak, Arrateko egoitzan bertan. Tabernakoek prestaturiko otordu eder bat dastatu ahal izan zuten hitzordura gerturatu ziren 50 lagun inguruk, guztiak ere giro ederrean. Bazkari amaieran, Arrateko zuzendari-



BAZKARI AMAIERAN HAINBAT OROIGARRI BANATU ZIREN.

tza batzordeko kideek oroigarria jaso zuten, Gipuzkoako Jubilatuz eta

Pentsionisten Elkarteko zuzendaritzako kideen eskutik.

Benetako aukera-berdintasunerantz

Ostegun honetan Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dugu. Martxoaren 8ari begira, "Usurbilgo Udalak gizon eta emakumeen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko lanean aritzeko duen konpromisoa berretsi nahi du", otsailaren 28an burutu zen osoko ohiko bilkuran Bilduk eta Aralarrek aurkeztu eta gehiago osoz onartu zen mozioak jasotzen duenez. Bilduk, Aralarrek, PSE-EEk eta EAJ-PNVk alde bozkatu, eta Hamaikabatek abstentziora jo zuen.



IXABEL AGIRRESAROBKE ERE
MARTXOAREN 8KO EKITALDIETAN
HARTUKO DU PARTE.

Desiren Putzua, bertso afaria edota kontzertuak, egunotan

Martxoaren 8a, ekitaldiz betea dator aurrean. Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea eta herriko emakume talde batek hitzordu desberdinak antolatu dituzte. Hilaren 8an, bertso-afaria ospatuko da, kontzertuak hilaren 9an, eta ekimen berritzaile bat ere bideratuko da egunotan: Desiren Putzua.

MARTXOAK 7-9

17:00-20:00 Desiren Putzua Sutegin. Paper batean desira bat idatzi eta Sutegin egongo den putzura botatzeko aukera izango da. Trukean, pipopo bat eta zozketa batean parte hartzeko zenbaki bat jasoko da.

MARTXOAK 8, OSTEGUNA

17:30 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa haurrentzat Sutegin.
20:30 Emakumeen eguneko bertso

afaria Artzabalen. Bakarrizketa saioa: Garbiñe Astiazaran. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Ainhoa Agirrezaldegi eta Onintza Enbeita. Sarrerak salgai aldeztuak: Txiribogan eta Txirristran.

MARTXOAK 9, OSTIRALA

18:00 Brillat txapelketa Mikel Laboa plazan: 14 urtetik gorakoek parte har dezakete. Seiko taldeak osatuko dira, talde guztietan emakumeen parte hartzea bermatu behar da.

Ondoren, eta brillat txapelketako finalaren aurretik, aerobik erakustaldia.

23:00 Kontzertuak Mikel Laboa plazan: Urrezko muskerrak eta Ganbaraka.

00:00 Desiren Putzuan parte hartu dutenen arteko zozketa. Ondoren, DJa.

Antolatzaileak: herriko emakumeak eta Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea. Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Datorren astean hasiko da Soinurbil

Ikuskizuna, kalejira, erakustaldia, kontzertua... Formatu edo diziplina desberdinetako hitzorduak biltzen dituen ekimena antolatu du Zumartek martxoaren 20tik 25era.

Soinurbil Musika Asteari ikuskizun batek emango dio hasiera. "Musika Tresnen Fabrika" izenekoak hain zuzen. 10 urte arteko haurrei zuzenduriko emanaldia da, musika tresnen erabilera irakasten duen Kortxea Dokorea, bere lagun Filomena eta bien laguntzaile Koxme izeneko pertsonaiekin. Ikuskizun honetarako sarrerak, aldeztuak Oiaro Kirolegian eskuratu ahal izango dira.

Elkartrukea, Loatzo Musika Eskolarekin

Urtero Zumarte Musika Eskolak beste eskola batekin elkartrukea egiten du. Aurtengo elkartrukea, Tolosaldeko Loatzo Musika Eskolarekin izango da. Hilaren 22an izango dira Sutegin.

Nafarroako Garinoain udalerrikoen Musika Bandaren kontzertuarekin amaituko da Soinurbil. Egunez eguneko egitarau eta ekintzen inguruko informazio zehatza, datorren martxoaren 16ko astekarian.



"MUSIKA TRESNEN FABRIKA"
IKUSKIZUNAREN IRUDIA.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

Aginagako Mendi Lasterketarako izena ematen hasia da jendea

200 lasterkariak izen eman zuten iaz, eta aurtengo ediziorako kirolariak apuntatzen hasiak dira. Aurreko urteetan baino goiztiarrago, Aginagako IV. Mendi Lasterketa martxoaren 18an ospatuko da.

Aginagako frontoitik abiatu eta bertan amaituko da. Goizeko 11:00etan hasita, 14 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute lasterkariak. Proba hasi baino ordu erdi lehenago, 10:30ean itxiko da izen ematea.

Ordubete lehenagotik 15 euro ordainduta, mendi aldeko lasterketa honetan parte hartu ahalko da. Edo bestela, aldeztu aurretik, 10 euroren truke herrikrossa.com web orrialdean sartuta.



10:30EAN ITXIKO DA IZEN-EMATEA. INTERNETEZ ERE EGIN DAITEKE.

Tximeletakoak, Udaberri Txapelketan

Tximeleta elkarteak, Gipuzkoako gimnasia erritmikoko federazioarekin batera, Udaberriko Txapelketa antolatu du. Iragarri genuen bezala, larunbat honetan egingo da Oiartzungo kiroldegian.

Usurbilgo partaideak alebin zein kadete taldekoak izango dira.

Desfilea goizeko 9:50ean hasiko da eta alebin lehiaketa 10:00etan abiatuko da. Infantil-kadete mailako lehiaketak, aldiz, 12:20ean hasiko dira.



TXIMELETAKO KIDEEK GOGO HANDIZ PRESTATU DUTE LARUNBATEKO TXAPELKETA.

Xabier Santxo, Euskal Herriko txapeldunorde

Larunbatean Gasteizen jokatu zuen finalean, txapeldunorde amaitu zuen Xabier Santxo usurbildarrak. Sukarrak jota zegoela esan behar da. 22-15 galdu zuen, Lea Ibarako Urionabarrenetxea bizkaitarraren aurka. Euskal Herriko Pilota Txapelketako finala zen, asteburuan Arabako hiriburuan jokatu zuena.

Pilota partidak

MARTXOAK 10 LARUNBATA
Goizeko 12:00etan Usurbilen
Udaberri Txapelketa
Eskuz Binaka Nagusiak 1. maila
Azken laurdenak
1- USURBIL - INTZA
(Iñaki Lizaso - Laurent Erreka)

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78

ZUBIARRRENA4, USURBIL
ileapaindegia
mistoia
943361951

LAUKOTE
okindegia
kafeteria
LAUKOTE
Puntapax 16, beheka 943 360 980

Aliprox
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Aratz mendira irteera igandean, Andatza Mendizale Elkartekoekin

15 kilometroko bost orduko ibilbidea egitea proposatzen dute igande honetarako, martxoaren 11rako, Andatza Mendizale Elkartekoek. 1.445 metroko garaiera duen Aratz mendirako txangoa antolatu dute. Irteerara joateko asmoa dutenek, goizeko 7:00etan Oiardo Kiroldegian egon beharko dute. Ordu horretan irtengo dira mendizaleak, kotxez. Informazio gehiago, andatzamendizale.info helbidean.



ARATZ MENDIA.

Martxoak 11 igandea

Irteera: Oiardo udal kiroldegitik.

Ordua: goizeko 7:00etan.

Garraioa: kotxez.

Ibilbidea: 15 km.

Gehieneko altuera: 1.445 m.

Ibilbidearen denbora: 5 ordu.

Andatza Mendizale Elkartek antolatzen dituen ekitaldietako eta irteeretako federatuen istripuak, mendi federazioko aseguruak babesten ditu. Gainontzeko partaideen aseguruaren beraren ardura da.



SAN ADRIANGO TUNELETIK IGAROKO DIRA.

Kirol zerbitzuen araudia eguneratze prozesuan da

Erabilitzaileen eskubide eta betebeharrak eta Usurbilgo Udalaren kirol instalakuntzak erabiltzeko baldintzak jasotzen dituen Kirol Zerbitzuen Araudi Nagusia hasieraz eta aho batez onartu zuen udalbatzak, azken osoko ohiko bilkuran. Gobernu taldetik berri eman zuten, aldaketak txertatu dira araudian, baina ez dago aldaketa sakonik. Behin behineko onarpenaren ostean, erreklamazio edo iradokizunak egiteko 30 eguneko epea egongo da orain. Halakorik egongo ez balitz, arautegia behin betiko onartutzat joko da.

Tarragonarako bidaiak, bertan behera

Usurbil FT-koek Aste Santurako antolatu asmo zuten bidaiak bertan behera geratu da. Kirol taldeetik berri eman dutenez, nahikoa jendek ez du izena eman eta aipatu moduan, bidaiak ez egitea erabaki dute.



NAHIKOA JENDE ANIMATU EZ DENEZ, BERTAN BEHERA GERATU DA.

Eskubaloia kiroldegian

2012/03/10, LARUNBATA:

Senior neskak, Euskal Liga "A".
17.00h. Atez Ate Usurbil - Jarrilleras.

Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789
943 37 29 37
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Datorren astean, Laburbira Sutegin

Urtero legez, Laburbira ere gure artera ailegatuko da. Topaguneak sustatzen duen ekimen honen bitartez, euskarazko 8 film labur ezagutu ahal izango ditugu. Martxoaren 18an igandearekin, arratsaldeko 19:00etan Sutegin. Sarrera doan izango da.

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Laburbiraren bederatzigarren edizioa aurkeztu zuen aurreko astean, Donostian. Euskarazko ikus-entzunezkoen arloan, urteko produktioa ezagutarazi eta herrietako kultur eskaintza aberasteko helburua duen zirkuitua urtero antolatzen du Topaguneak, herrietako Euskara Elkarteekin lankidetzan. Usurbilen,



"ZEINEK GEHIAGO IRAUN"
LABURMETRAIAREN IRUDIA.

NOAUA! Kultur Elkartearekin batera.

Aurtengoa 9. edizioa izango da eta iraupen laburreko 8 ikus-entzunezko eramango ditu herriz herri. 30 emanaldi eskainiko dira apirilaren 3a bitartean, Euskal Herrian eta Paris, Madril zein Londresen.

Zirkuitu honen baitan, Laburbiraz gozatzeko aukera izango dugu Sutegin, martxoaren 18an igandea.

Zubietako kartzelako lanak atzeratuko dituzte

Espainiar gobernuak dituen arazo ekonomikoek, Zubietarako aurreikusia dagoen kartzela berrian bete-betean eragin dute, lanak geldotu eta honenbestez, atzeratu asmo baititu Madril, azken egunotan hedabideek berri eman dutenez. Antza, espetxe berrirako langile edo funtzionario falta du espainiar gobernuak. Eta aurten behintzat, lanpostuen lehiaketa publikorik deitzeko asmorik ez dute. Espetxeetako Erakundeetako Angel Yustek, Donostiako Udaleko alkate Juan Karlos Izagirrerri baieztatu zion albiste, martxoaren 2an.

Halere, gai honi buruz hitz egiteko bi aldeak biltzekoak dira datozen asteotan. Espainiar gobernuak harturiko erabakiaren aurka agertu dira, Donostiako Udaleko EAJ-PNV, PSE-EE eta PP udal taldeak. Ezker Abertzalea baikor agertu da albistearen aurrean.

Zubietako kartzela noiz eraikiko zain dira hain zuzen, Martuteneko espetxea bota eta lur eremu horretan, 1.200 inguru etxebizitza eraikitzeko. Hasiera batean, Zubietako eraikina 2014. urterako amaitzea aurreikusia zegoen.

Auzolan Elkartearen bilera, larunbat honetan

Errisilientziaren eta Garapenaren aldeko Usurbilgo Herri-Hitzarmena izenburua daraman dokumentua aurkeztu eta eztabaidatzeko, bilera deitu du joan den udazkenean Euskal Herri mailako lehen topaketak antolatu zituen Auzolan Elkarteak. Hitzordua, larunbat honetarako, martxoaren 10erako jarri dute, goizeko 9:30etan inauguratu berri duten Potxoenea kultur etxean. Egungo krisi orokorraren testuinguruan, ikuspegi estrategiko bateratu bat eratzeko gogoa kolektiboa bultzatu nahi du Auzolan Elkarteak. Bide horretan, bilguneak aipatu dokumentua aurkeztu nahi du larunbatean.

Egungo egoeran eragiteko honako ekintza eremuak biltzen ditu dokumentuak: elikadura burujabetza, energia subiranotasuna, tokiko merkataritza, tokiko txanpon-trukea, hondakinak, hezkuntza, kultura eta beste batzuk. Eremuon inguruan elkarlana bultzatuko lukeen herri hitzarmen bat adostea helburu luke, hilaren 10ean aurkeztu eta eztabaidatuko den dokumentu honek.

Buruntza Jalgi Hadi Garaipenera gazte taldea

Gaztelako tropek 1512an Nafarroa konkistatu zuteneko bosgarren mendeurrena beteko den honetan, orduko hartan gertaturikoa gogorarazi asmoz sortzera doa Buruntza Jalgi Hadi Garaipenera taldea. Buruntzaldeko udalerrietako gazte, gaztetxe edota asanbladek parte hartuko dute bertan.

Bilgunea, larunbat eguerdiko 12:00etan frontoian aurkeztuko dute prentsurreko bidez.

"Zu zeu zarena nondik datorren jakin nahi duzu edo denari uko eginda bizi edonoren menpe bizitzeko inongo arrazoirik izan gabe aurka joateko?", luzatu dute gonbita, asteburuan jendaurrean aurkeztuko den bilgunetik.

Hotzikararen aldeko bozka

Euskal Herria Zuzenean jaialdiak maketa lehiaketa antolatu du. Hotzikara musika taldeak kontzertua eskaintzeko aukera izan dezake, baldin eta behar beste babes jasozten badute sarean. Euskal Herriko musika sorkuntza lana bultzatzeko antolatu dute ekimena. Lehiaketa honetako irabazleek hainbat kontzertutan jotzeko aukera izango dute, tartean, Euskal Herria Zuzenean jaialdian. Martxoaren 9ra arte, eman daiteke Mikel Olasagasti, David Illarramendi, Antton Aranburu eta Beñat Arteagak osatzen duten taldearen aldeko bozka. Helbide honetan: http://ehz-festibala.eu/ehz#musika_tb. Txapelketako finalerdia, Donostiako Intxaurren auzoko kultur aretoan ospatuko da, hilaren 23an. 12 talde ari dira lehian.



Agenda !!

Martxoak 7/9

17:00-20:00 Desiren Putzua Sutegin.

Martxoak 8 osteguna

20:30 Emakumeen eguneko bertso afaria Artzabalen.

Martxoak 9 ostirala

18:00 brillet txapelketa Mikel Laboa plazan.

23:00 kontzertua Mikel Laboa plazan: Urrezko muskerrak, Ganbaraka.

00:00 Desiren Putzuan parte hartu dutenen zozketa. Ondoren, DJ-a.

Goardiako farmaziak

Martxoak 8, osteguna
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 9, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 10, larunbata
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 11, igandea
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 12, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 13, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 14, asteazkena
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 15, osteguna
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Martxoak 16, ostirala
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 17, larunbata
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 18, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.

Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

Ukenduen tailerra antolatu du euskaltegiak, martxoaren 20rako

Etumeta AEK euskaltegiak tailer berri bat antolatu du, martxoaren 20rako; ukenduen ingurukoa. Berri eman dutenez, "hanturak, kolpeak, muskulu arazoak... sendatzeko". Bi orduko saioa izango da, aipatu moduan hilaren 20an, euskaltegiko egoitzan bertan. 19:00etatik 21:00etara eskainiko du tailerra, Itziar Salegik.

Izen ematea irekita dago. Interesdunek AEKra jo dezakete; bestela deitu, 607 609 379 telefono zenbakira; edo idatzi, usurbil@aek.org helbidera. Apuntatzeko epea, martxoaren 16an itxiko dute. Saioan parte hartzeagatik, 3 euro ordaindu beharko dira.

34.184, zenbaki saritua

Urtebetez, 1.000 euro jasotzeko aukera zozketatu du AEK euskaltegiak. Saria otsailaren 29ko ONCE-rekin atera zen;



IZENA EMAN BEHAR DA AURRETIK.

34.184 zenbakidun errifa baduzu, adi, guztira 12.000 euro irabazi dituzu eta. AEK-tik ohartarazi dutenez, "zenbakia- ren jabea azaltzen ez bada, apirilaren 3an ONCE-rekin aterako den zenbakia izango da saritua. Hori dela eta, ordura arte gordeta eduki zenbakiak".

Euskaltegiak, telefono berria

Aurrerantzean euskaltegiarekin harremanetan jarri nahi duzuenok, ahaztu 943 372 001 telefono zenbaki zaharrak eta apuntatu berria: 607 629 379.

Uholdeetako kalteak konpontzeko diru-laguntza eskatuko du Udalak

Azaro uholdeek eragindako kalteak konpontzeko Usurbilgo Udalak diru-laguntza eskatuko du, Foru Aldundiak eskabideak egiteko egin berri duen deialdiaren baitan. Aldundiak 1,5 milioi euro bideratuko ditu Udalek jasandako kalteak konpontzera eta beste 200.000 euro, kaltetutako nekazari eta abeltzain profesionalentzat. Usurbilgo Udalak azaroan zehar, kaltetuen informazioa jaso eta abenduan Aldundira igorri zuen. Udaletik gaineratu dutenez, Aldundiak "ondasun publikoetan nahiz pribatuetan izandako kalteei buruzko

informazioa bildu du eta kalte horien ebaluazioa egin du".

Aipatu moduan, Udalak bere diru-laguntza eskaera egingo du, baina ohar-tarazten dutenez, "nekazariak zuzenean aurkeztu beharko dute eskaera berria Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentuko Landare Alorreko Unitatean (Gipuzkoa plaza z/g, 3.solairua, 2004 Donostia)". Hilabeteke epea dago. Diru-laguntza deialdia martxoaren 1ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; 7/2012 Foru Dekretua, otsailaren 28koa.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ETXEBIZITZA

- Pisua alokatzen dut Elgoibar erdigunean. Lau gelakoa. 677 780 680.
- 3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gazte-lu eta mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.
- Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.
- Pisu bat alokatzen da. Bi gelakoa, San Esteban bidean. 609 413 883.
- Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346.
- Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.
- Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainugela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.
- Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukalde, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318.
- Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara eta igogailuarekin. 662 056 899.
- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabala, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berritua, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altzariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabilza Usurbil inguruan. Fidantza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudatzen pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatua nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logetakotako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzeko jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau logetakotako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailan. Kalezarren. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro karratuko. Gazteentzat... Atxegalden. 628 063 871.
- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Arstitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m garaje itxia salgai, Txaramuntan. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen. 647 120 253.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarondorekin. Deitu: 943 361 463.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.

-50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Selektibitate prestatzeko klaseak jaso nahi ditut martxoan eta apirilean, bi alor hauetan: Matematika (zientziatkoa eta letretakoa) eta Marrazketa teknikoak. Deitu, mesedez, telefono honetara: 665 748 723.
- Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume euskaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilza. Nahiego Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrik emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitze Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.
- Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.
- Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.
- Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568
- Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.
- Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edo-zein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.
- Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. Tlf: 673 445 903.
- Emakume eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324
- Umeak zainduko nituzke arratsaldez edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.
- Usurbilgo neska gazte bat naiz. Heziketa Berezian diplomatu eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrik emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gaztekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrik emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatu naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf.: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrik emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziak eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf.: 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrik emateko prest. Matematika, Marrazketa... 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrik, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natiboa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urteik 8 urte arte klase partikularrik emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehentetik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da.

666773813

- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zaindu pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrik ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri, baratzeko lanak, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetarako, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest: 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klaseak emateko prest. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685772602 // 943371277.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Kalexarren, maleta bat galdu da hezetasunari buruzko informazioarekin. Aurkitzen duenak deitu dezala 626 471 135 telefonora. Saritu egingo da.
- Landetan "movil home" bat alokatzen da "Lago Leon" en. Aste Santuko bigarren astea, uztaila eta iraila. "Punta Lago" kanpian. 634 443 909.
- Hemengo babarruna salgai, artorekin batera egindakoa: 637 974 994.
- Proba ezazu modan dagoen kirola padel!! Klase bat doan. Irakasle tituladunak 667438145.
- Haur sila eta kapazoa, Bogaboo edo antzeko bat saltzen baduzu, deitu telefono honetara: 667 715 075.
- Hemengo urra eta patata erosiko nituzke. 634409888.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 (Jesus Mari).
- Legorretako babarruna salgai. 943 80 62 48
- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke 616 260 451.
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeoia saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Hemengo intxaurrekin salgai. 943 67 11 60.
- Usurbilen WII-a, PSP-a eta Nintendo DSI-aren sofwarea aldatzen da, Internetetik jaisitako joko guztietan jolasu ahal izateko. Ez da txipik instalatzen, ez da kontsola irekitzen. 635 729 637.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.
- Buru gorridun lorito berde bat falta zait, urtarilia erdialdeaz geroztik. Aurkitu baduzu deitu: 666 177 913.



Iritsi da eguna,
besarkada
handi bat zaren
bezala zarelako,

etxekoan partez eta
hainbeste maite dituzun
Malen eta Pello.



Zorionak gure
etxeko sorginari!
Martxoaren 11n,
4 urte beteko

dituzu, muxu potolo
asko asko etxeko
guztietan partez.



Zorionak
Ane!
Martxoaren
13an 2

urte! Senideok eta
lagunok asko maite
zaituztegu.



Zorionak Uxue!
Martxoaren 6an
5 urte bete
dituzu. Eskutxoa

bete duzu! Zorionak
eta muxuak etxeko
denen partez.

HILDAKOAK

Felix Hernani Cubillas
82 urterekin hil zen
otsailaren 29an

Marcelina Azpiroz Illaramendi
92 urterekin hil zen
otsailaren 27an





Hurbilago txartelarekin, 50, 20, 10 eta 5 €ko 100 erosketasari baino gehiagoren zozketan parte hartuko duzu.

MARTXOAN ETA APIRILEAN

Hurbilago txartelarekin ordaindutakoan, datafonoko tikean azalduko zaio bezero sarituari bere erosketa-saria. Erosketa-sariaren frukea, Hurbilagoko edozein establezimendutan egin ahal izango da 2012ko maiatzaren 31a baino lehen eta egindako erosketa berri baten zenbatekotik deskontatuko da.



TXOTX!!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



AIALDE BERRI

Tel: 943 365 031

Santuenea

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdian IREKITA
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserría **Ereñotzu - Hemani**
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



SAIZAR
Betiko Sagardoa



Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 37 39 95
www.sidrassaizar.com

ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA

Sagardo ekologikoa



Arratzain Baserría
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL

☎ 943 36 12 29

iruín
sagardotegia



Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

AGINAGA
Sagardotegia

Urte osoan txotxetik



Estreka kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel eta Faxe: 943 36 67 10
Tel: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginasagardotegia.com